



## ATZERRITAR BIZTANLERIA EAEn 2012

Panoramika honen bidez, 2011ko ekaineko 40. panoramikaren edukia eguneratuko dugu; orduko hark 2011ko urtarrilaren 1ean EAEn errolatutako atzerritarren kopurua jasotzen zuen. Horretarako, 2012ko urtarrilaren 1ean EAEn errolatutako biztanleria aztertu dugu, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) aurreratutako behin-behineko datuak kontuan hartuta. Azken urte honetan, ikusi dugu EAEko krisia krisi, gero eta atzerritar gehiago daudela errolatuta, eta, aurrenekoz, Marokotik beste herrialdeetatik baino gehiago etortzen direla.

### 1. Biztanleen udal-errola. Ikuspegi orokorra

1. taula. Atzerritar biztanleria EAEn, sexuaren eta lurralde historikoen arabera. 2011-2012

	2011						Urtetik urterako hazkundera
	Guztira		Gizonak		Emakumeak		
	K	K	%	K	%		
Espainia	5.751.487	2.998.707	52,1	2.752.780	47,9	0,1	
EAE	145.256	74.689	51,4	70.567	48,6	4,2	
Araba	28.821	15.874	55,1	12.947	44,9	2,2	
Gipuzkoa	44.179	22.379	50,7	21.800	49,3	4,1	
Bizkaia	72.256	36.436	50,4	35.820	49,6	5,2	

	2012						Urtetik urterako hazkundera
	Guztira		Gizonak		Emakumeak		
	K	K	%	K	%		
Espainia	5.711.040	2.964.231	51,9	2.746.809	48,1	-0,7	
EAE	151.162	77.795	51,5	73.367	48,5	4,1	
Araba	30.136	16.615	55,1	13.521	44,9	4,6	
Gipuzkoa	45.913	23.216	50,6	22.697	49,4	3,9	
Bizkaia	75.113	37.964	50,5	37.149	49,5	4,0	

Iturria: EINek dituen datuekin egina

Krisi ekonomikoa egonda ere, EAEn errolatutako atzerritar biztanleriaren kopuruak gora egiten jarraitzen du. Horixe da 1. taulatik ondorioztatzen den daturik garrantzitsuena. Taula horretan, 2011tik 2012ra atzerritar biztanleriak izandako bilakaera erakusten da.


2012ko urtarrilaren 1eko behin-behineko datuek adierazten dute 151.162 pertsona direla EAEn errolatutako atzerritar-  
rak, 2011. urtean baino %4,1 gehiago. Estatu osoan izan-  
dako aldakuntzarekin konparatuta (-%0,7), EAEn immigra-  
zioa gorakada izaten ari da, eta Estatu osoan, ordea, behe-  
rakada txiki bat.

Gorakada hiru lurralde historikoetan gertatu da. Bizkaian bizi da atzerritar kopuru handiena, zehatz-mehatz 75.113, 2011n baino %4 gehiago, alegia. Gipuzkoan, berriz,

45.913 atzerritar daude errolatuta (%3,9ko hazkundera), eta Araban 30.136 (%4,6ko hazkundera). Beraz, Araban hazkundera handiagoa izan da aurrenekoan; haren ondoren, Bizkaia eta Gipuzkoa.

Sexuen araberako banaketan ere desberdintasunak daude. EAE osoan, gizonen atzerritarren ehunekoa emakumezko-  
ena baino pixka bat altuagoa da; %51,5 eta %48,5, hurre-  
nez hurren. Hala ere, alde hori handiagoa da Araban: lurral-  
de horretan, gizonen ehunekoa %55,1 da, eta emakume-  
na, berriz, %44,9. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, propor-  
tzioak oso antzekoak dira. Araban dagoen aldearen arrazoiak  
afrikarren kopuru handiagoa da, batez ere magrebtarrena;  
izan ere, jatorri horretako etorkin gehienak gizonak dira.

1. grafikoa. Atzerritar biztanleriaren urtetik urterako hazkundera EAEn, lurralde historikoetan eta Espainiako zenbait erkidegoetan, eta atzerritarren ehunekoa haietan guztietan (%)



Iturria: EINek dituen datuekin egina

Zer-nolakoa izan da EAEko bilakaera beste autonomia-erkidegoetakoarekin alderatuta? 2. taulak erantzuten dio galdera horri; izan ere, taula horretan ikus daiteke EAE izan dela 2012. urtean atzerritar biztanleriaren hazkunde erlatibo handiena izan duen autonomia-erkidegoa. Kopuru absolutuei dagokienez, 5.906 atzerritar berri erroldatu dira EAEn. Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik, Andaluzia da atzerritar biztanle gehien dituenena, %8,8; hau da, 13.465 atzerritar gehiago daudela; haren atzetik, Extremadura dago, %3,8; hau da, 599 atzerritar gehiago.

Hala eta guztiz ere, 1. grafikoak erakusten duen ezaugarri garrantzitsuen zera da: atzerritar biztanleriaren ehuneko baxuenak dituzten autonomia-erkidegoak dira immigrazioaren hazkunde handiena izan dutenak. EAEn immigrazioak duen pisua (%6,9) Estatu osoan duenaren erdia da. Hain zuzen ere, Estatuan duen pisua %12,1koa da, Extremaduran duena %3,8koa, eta Andaluzian duena %8,8koa.

Aldiz, atzerritarren ehuneko altuak dituzten autonomia-erkidegoetan ari da jaisten erroldatutako atzerritarren kopurua. Joera hori hainbat arrazoiren ondorio izan daiteke; besteak beste, Estatuan denbora gehiago daramaten atzerritarren nazionalizazioa (horrek eragin zuzena izan du migrazio-fluxu gehien hartu zituzten lurraldeetan), eta immigrazioaren lurralde-birbanaketa lan-aukeretan izandako aldaketak direla eta.

Hiru lurralde historikoetan immigrazioaren pisua ez da berbera. Araban duen pisua %9,3koa da, Bizkaiko ehuneko (%6,5) eta Gipuzkoako ehuneko (%6,5) baino ia hiru puntu handiagoa. Bi probintzia horietako ehunekoak EAE osoko ehuneko (%6,9) baino zertxobait baxuagoak dira. 2012. urteko errealitate horrek 2001etik egon den joera orokorra berresten du: Arabako atzerritarren ehuneko altuagoa da, EAEREkin, Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin alderatuta. Bi probintzia horiek, berriz, ehuneko oso antzekoak dituzte, baina beti dira EAEko baino baxuagoak.

Beste alderdi garrantzitsu bat da immigrazioak demografiadynamikan izan duen eragina. 2. taulan ikus daitekeenez, eragin positiboa izan du. 2012. urtean, 1998an baino 93.094 biztanle gehiago bizi da EAEn. Hazkunde horren arrazoi nagusia atzerritar biztanleriaren gorakada da; hain zuzen ere, 1998an 15.198 atzerritar zeuden erroldatuta, eta 2011n, berriz, 151.162. Aldiz, epe horretan bertan, bertako biztanleriak 42.870 pertsonako beherakada izan du.

Beraz, immigraziolari esker, biztanleria galtzeko dinamikari bira eman zaio EAEn. Demografia-egituran izandako eragin positibo hori argi eta garbi antzeman daiteke atzerritar biztanleriak duen pisuaren gorakadan: 1998an, %0,7 zen, eta 2012an, %6,9 da. Hala ere, gorakada hori Estaturako baino txikiagoa izan da, urte horietan: %1,6 zena %12,2 baita orain Estatuan.

2. grafikoa. Atzerritar biztanleriaren ehunekoaren bilakaera EAEn eta lurralde historikoetan. 1998-2012



Iturria: EINek dituen datuekin egina

2. taula. Bertako eta atzerritar biztanleriaren bilakaera, eta EAEn eta Espainiako atzerritarren ehunekoak. 1998-2012


	Biztanleria				Atzerritarren tasa	
	EAE	Bertakoa	Atzerritarra	Hazkundera	EAE	Espainia
1998	2.098.628	2.083.430	15.198		0,7	1,6
1999	2.100.441	2.083.648	16.794	1.596	0,8	1,9
2000	2.098.596	2.077.456	21.140	4.346	1,0	2,3
2001	2.101.478	2.074.040	27.438	6.298	1,3	3,3
2002	2.108.281	2.069.873	38.408	10.970	1,8	4,7
2003	2.112.204	2.062.973	49.231	10.823	2,3	6,2
2004	2.115.279	2.056.113	59.166	9.935	2,8	7,0
2005	2.124.846	2.051.952	72.894	13.728	3,4	8,5
2006	2.133.684	2.048.142	85.542	12.648	4,0	9,2
2007	2.141.860	2.043.336	98.524	12.982	4,6	9,9
2008	2.157.112	2.039.775	117.337	18.813	5,4	11,4
2009	2.172.175	2.039.310	132.865	15.528	6,1	12,1
2010	2.178.339	2.038.970	139.369	6.504	6,4	12,2
2011	2.184.606	2.039.350	145.256	5.887	6,6	12,2
2012	2.191.722	2.040.560	151.162	5.906	6,9	12,1
1998-2012	93.094	-42.870	135.964	135.964	6,2	10,5

Iturria: EINek dituen datuekin egina

Migrazio-hazkundera ez da modu homogeneoan gertatu beti. 3. grafikoa erakusten du fenomenoaren bilakaera, eta horretan lau aldi bereiz daitezke:

- Hastapenak (1998-2000). Aldi horretan atzerriko immigrazioa gero eta errealitate garrantzitsuago bihurtu zen. Hazkundera areagotzen hasi zen, eta 1998tik 2000ra, atzerritarrak 1.600 inguru izatetik 6.300 inguru izatera iritsi ziren.
- Finkatzea (2001-2003). Aldi horretan, urteko hazkundera erroldatutako 10.000 atzerritar berri ingurukoa zen. Migrazio-fenomenoa finkatu egin zen EAEn, eta garrantzitsu bihurtu zen.
- Areagotzea (2004-2008). Bost urte horietan gertatu zen migrazio-hazkundera handiena. Hazkundera-eritmoa, gelditu beharrean, bizkortu egin zen; 2007an izan zen erroldatze berrien tasa handiena, 18.813 erroldatze berri, alegia.
- Kriaren eragina (2009-2011). Krisi ekonomikoa asko nabaritu zen, eta hazkundera-eritmoa nabarmen jaitsi zen. Hala ere, immigrazioak gora egiten jarraitu zuen eta migrazio-fenomenoaren aldia hasi zeneko maila berbera hartu zuen; hau da, 5.000 erroldatze berri baino gehiago.


3. grafikoa. Atzerritarren urtetik urterako hazkunde absolutua EAEn (1998-2012)



Iturria: EINEk dituen datuekin egina

## 2. Nazionalitate-taldeak

4. grafikoa. EAEko atzerritar biztanleriaren osaera, nazionalitate-eremuen arabera. 2003-2012



Iturria: EINEk dituen datuekin egina

Etorkinen jatorrizko herrialdearen eta nazionalitatearen arabera bilakaeraren analisiak bi gauza erakusten ditu: bate-tik, EAEn iristen diren migrazio-fluxuen aniztasuna; eta, bestetik, atzerritar biztanleriaren osaeran jatorrizko nazionalitate-eremuek duten pisua.

4. grafikoa (ehunekotan) eta 3. taulak (kopuru absolutuetan) erakusten dituzte EAEko etorkinen osaeran gertatutako aldaketak. Hala ere, joera argi bat antzematen da: Latinoamerika da immigrante gehieneko jatorria, eta atzetik Europar Batasuna eta Magreb.

2003. urtetik izandako bilakaerak erakusten du migrazio-fluxuen jatorria aldakorra izan dela:

2003tik 2004ra latinoamerikarren migrazio-hazkundera nabarmena izan zen; izan ere, atzerritar guztien ia erdia ziren (%48,4), eta tasa hori mantendu zen 2007ra arte.

2006tik aurrera, gainerako Europako biztanleriaren migrazio-hazkundera hasi zen, batez ere errumaniarrena. 2007an Errumania Europar Batasuneko kide bihurtzearen ondorioz, nazionalitate horren pisua erroldatutako atzerritar guztien %27,3ra iritsi zen.

2009tik aurrera, magrebtarrak (batez ere marokoarrak) izan dira hazkunderaren protagonistak: 2007an %11,8 zen, eta 2012an, %16,3 dira.

3. taula. Atzerritar biztanleriaren bilakaera EAEn, geografia-eremu arabera. 2003-2012

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
EB 25	11.001	11.192	12.527	14.294	14.294	18.211	19.461	19.475	18.701	18.688
EB 27	0	0	0	0	9.484	13.772	15.652	16.280	17.277	18.708
EB guztira	11.001	11.192	12.527	14.294	25.517	31.983	35.113	35.755	35.978	37.396
Gainerako Europa	3.180	4.852	7.044	9.439	2.824	3.431	3.839	4.102	4.381	4.564
<b>Europa guztira</b>	<b>14.181</b>	<b>16.044</b>	<b>19.571</b>	<b>23.733</b>	<b>28.341</b>	<b>35.414</b>	<b>38.952</b>	<b>39.857</b>	<b>40.359</b>	<b>41.960</b>
Magreb	5.961	7.441	8.877	10.292	11.623	13.932	17.345	20.002	22.208	24.692
Gainerako Afrika	3.032	2.961	4.504	4.673	5.199	6.371	7.950	9.189	10.422	11.677
<b>Afrika guztira</b>	<b>8.993</b>	<b>11.152</b>	<b>13.381</b>	<b>14.965</b>	<b>16.822</b>	<b>20.303</b>	<b>25.295</b>	<b>29.191</b>	<b>32.630</b>	<b>36.369</b>
AEB eta Kanada	889	867	956	920	766	816	856	898	943	981
Latinoamerika	22.657	28.327	35.054	41.293	47.558	54.865	60.741	61.514	61.688	60.545
<b>Amerika guztira</b>	<b>23.546</b>	<b>29.104</b>	<b>36.010</b>	<b>42.213</b>	<b>48.324</b>	<b>55.681</b>	<b>61.597</b>	<b>62.412</b>	<b>62.631</b>	<b>61.526</b>
Txina	1.340	1.558	2.120	2.530	2.810	3.282	3.960	4.338	4.763	5.176
Gainerako Asia	1.064	1.197	1.560	1.983	2.119	2.549	2.938	3.440	4.735	5.989
<b>Asia guztira</b>	<b>2.404</b>	<b>2.755</b>	<b>3.680</b>	<b>4.513</b>	<b>4.929</b>	<b>5.831</b>	<b>6.898</b>	<b>7.778</b>	<b>9.498</b>	<b>11.165</b>
Ozeania	102	105	120	111	93	97	108	105	112	115
Herrigabeak	5	6	5	7	15	11	15	26	26	27
<b>Guztira</b>	<b>49.231</b>	<b>59.166</b>	<b>72.767</b>	<b>85.542</b>	<b>98.525</b>	<b>117.337</b>	<b>132.865</b>	<b>139.369</b>	<b>145.256</b>	<b>151.162</b>

Iturria: EINek dituen datuekin egina

Azpimarratu beharra dago nazionalizazio-prozesuak datu horien estatistika desitxura dezakeela, espainiar nazionalitatea eskuratzen duten biztanleak estatistikatik desagertzen baitira. Era berean, esan beharra dago nazionalizazio-prozesu hori ez dela modu berean gertatzen nazionalitate guztietan, horietako bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak desberdinak baitira. Adibidez: latinoamerikarrek, egoitzaskubidea eskuratzen dutenetik, bi urte behar dituzte espainiar nazionalitatea lortzeko; aldiz, beste batzuek (magrebtarrek, esaterako) hamar urte behar dituzte.

4. taulan laburtzen da azken bost urteetan atzerritar biztanleriaren hazkundeak jatorrizko geografia-eremuaren arabera izan duen bilakaera. Ikus daitekeenez, azken bost urteetan afrikarrek izan dute gorakada handiena EAEn; izan ere, hazkunde absolutuari dagokionez, 19.547 afrikar erroldatu dira, hau da, atzerritar berri guztien %37,1. Europako kolektiboa dator ondoren (%25,9), eta gero, amerikarrak (%25,1). Jatorrizko lurraldeei begiratu gero, lehen aldiz

dira magrebtarrak ugarietak (%24,8); Latinoamerika da bigarren eremu geografikoa orain (%24,7) eta Europar Batasunekoak hirugarrena (%22,6).


Bestalde, nazionalitate bakoitzak hiru lurralde historikoetan duen pisua desberdina da. Desberdintasun horren arrazoi nagusia lan-merkatua da; izan ere, tokiko lan-merkatuaren ezaugarrien arabera, jatorri bateko edo besteko etorkinek immigratuko dute bertara. Hala, 5. grafikoen ikus daitekeen moduan, jatorrizko geografia-eremuaren arabera hiru talde handi daude EAEn: etorkinen %40,1 Latinoamerikatik dator, %24,7 Europar Batasunetik, eta %16,3 Magrebetik. Lurralde historikoetako hiru talde handiak aipatutako hiruak dira, baina pisu ezberdina dute: Araban, biztanleria magrebtarrak duen pisua (%29,2) beste bi lurralde historikoetan duena baino handiagoa da; Gipuzkoan, garrantzi handia dute Europar Batasunetik iritsitako etorkinek (%31,2); Bizkaian, ordea, latinoamerikarrek duten pisua (%44,2) EAE osoan dutena baino handiagoa da.

4. taula. Atzerritar biztanleriaren hazkunde absolutua eta erlatiboa, nazionalitate-eremu geografikoen arabera, 2007tik 2011ra

	2007	2012	Absolutua	Erlatiboa (%)	Banaketa (%)
EB 25	14.294	18.688	4.394	30,7	8,3
EB 27	9.484	18.708	9.224	97,3	17,5
EB guztira	25.517	37.396	11.879	46,6	22,6
Gainerako Europa	2.824	4.564	1.740	61,6	3,3
<b>Europa guztira</b>	<b>28.341</b>	<b>41.960</b>	<b>13.619</b>	<b>48,1</b>	<b>25,9</b>
Magreb	11.623	24.692	13.069	112,4	24,8
Gainerako Afrika	5.199	11.677	6.478	124,6	12,3
<b>Afrika guztira</b>	<b>16.822</b>	<b>36.369</b>	<b>19.547</b>	<b>116,2</b>	<b>37,1</b>
AEB eta Kanada	766	981	215	28,1	0,4
Latinoamerika	47.558	60.545	12.987	27,3	24,7
<b>Amerika guztira</b>	<b>48.324</b>	<b>61.526</b>	<b>13.202</b>	<b>27,3</b>	<b>25,1</b>
Txina	2.810	5.176	2.366	84,2	4,5
Gainerako Asia	2.119	5.989	3.870	182,6	7,4
<b>Asia guztira</b>	<b>4.929</b>	<b>11.165</b>	<b>6.236</b>	<b>126,5</b>	<b>11,8</b>
Ozeania	93	115	22	23,7	0,0
Herrigabeak	15	27	12	80,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>98.525</b>	<b>151.162</b>	<b>52.637</b>	<b>53,4</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EINek dituen datuekin egina

5. grafikoa. Atzerritar biztanleria EAEn eta lurralde historikoetan, nazionalitate-eremuen arabera. 2012



Iturria: EINek dituen datuekin egina

### 3. Nazionalitate nagusiak

5. taula. Hamar nazionalitate nagusiak EAEn. 1998, 2001, 2004, 2007, 2010, 2011 eta 2012

1998			2001			2004			2007		
Guztira	15.130	100,0	Guztira	27.438	100,0	Guztira	59.166	100,0	Guztira	98.524	100,0
Portugal	3.227	21,3	Portugal	4.031	14,7	Kolonbia	9.044	15,3	Kolonbia	11.630	11,8
Maroko	1.612	10,7	Kolonbia	2.845	10,4	Ekvador	7.038	11,9	Bolivia	9.568	9,7
Frantzia	1.121	7,4	Maroko	2.720	9,9	Maroko	5.505	9,3	Errumania	8.715	8,8
Alemania	807	5,3	Brasil	1.404	5,1	Portugal	4.607	7,8	Maroko	8.627	8,8
Erres. Batua	782	5,2	Frantzia	1.375	5,0	Errumania	2.652	4,5	Portugal	7.437	7,5
Kuba	527	3,5	Ekvador	1.219	4,4	Argentina	2.329	3,9	Ekvador	7.436	7,5
AEB	511	3,4	Erres. Batua	1.145	4,2	Brasil	2.269	3,8	Brasil	4.320	4,4
Argentina	493	3,3	Alemania	1.013	3,7	Aljeria	1.936	3,3	Argentina	2.916	3,0
Brasil	438	2,9	Kuba	984	3,6	Frantzia	1.690	2,9	Txina	2.810	2,9
Txina	422	2,8	Txina	900	3,3	Txina	1.558	2,6	Aljeria	2.532	2,6
Guztira 10	9.940	65,7	Guztira 10	17.636	64,3	Guztira 10	38.628	65,3	Guztira 10	65.991	67,0

2010			2011			2012		
Guztira	139.369	100,0	Guztira	145.256	100,0	Guztira	151.162	100,0
Errumania	15.217	10,9	Errumania	16.231	11,2	Maroko	17.722	11,7
Maroko	14.447	10,4	Maroko	15.823	10,9	Errumania	17.556	11,6
Kolonbia	12.845	9,2	Kolonbia	12.166	8,4	Bolivia	11.657	7,7
Bolivia	12.048	8,6	Bolivia	11.855	8,2	Kolonbia	11.112	7,4
Portugal	9.350	6,7	Portugal	8.676	6,0	Portugal	8.426	5,6
Ekvador	7.406	5,3	Ekvador	6.700	4,6	Aljeria	5.932	3,9
Brasil	5.824	4,2	Brasil	5.782	4,0	Ekvador	5.648	3,7
Aljeria	4.676	3,4	Aljeria	5.448	3,8	Paraguai	5.521	3,7
Paraguai	4.627	3,3	Paraguai	5.173	3,6	Brasil	5.512	3,6
Txina	4.338	3,1	Txina	4.763	3,3	Txina	5.176	3,4
Guztira 10	90.778	65,1	Guztira 10	92.617	63,8	Guztira 10	94.262	62,4

Iturria: EINek dituen datuekin egina

Nazionalitatearen arabera, hamar nagusien artean Latinoamerikako bost daude (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Brasil eta Paraguai), Europar Batasuneko bi (Errumania eta Portugal), Afrikako bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bat (Txina).

Lehen aldiz, Maroko da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn: herrialde horretako 17.722 lagun daude errolatuta gure autonomia-erkidegoan, atzerriko biztanle guztien %11,7. Bigarren nazionalitatea Errumania da, atzerriko biztanle guztien %11,6. 5. taulan ikus daitekeenez, hamar

nazionalitate nagusiek biltzen dute atzerritar biztanleriaren %62,4. Datu hori aurreko urteetako datuekin alderatzen badugu, ehuneko horrek beherazko joera duela ikusiko dugu. Horrek esan nahi du nazionalitateek gero eta presentzia handiagoa dutela eta EAEko atzerritar biztanleriaren osaera dibertsifikatu egin dela.

Bestalde, nazionalitateen sailkapenaren bilakaerak argi eta garbi erakusten du errumaniarren hazkunde bizkorra: 2002an nazionalitate hori ez zegoen lehenengo hamarren artean, eta gaur egun bigarrena da. Horretaz gainera, marokoar nazionalitatekoak dira EAEn atzerritar gehienak; kolonbiarrak, ekuadortarrak, portugaldarrak, txinatarrak eta brasildarrak, berriz, 2002tik dira lehen hamar nazionalitateen barruan.


Alabaina, oso interesgarria da 2007tik 2012ra EAEko hamar nazionalitate garrantzitsuenen bilakaerari erreparatzea. Gorabehera oso esanguratsuak ikusten dira.

Maroko %105 handitu da, eta hori da daturik deigarriena; 2007an, laugarren nazionalitatea zen, Kolonbia, Bolivia eta Errumaniaren atzetik, eta orain, hura da nazionalitate nagusia EAEn. Antzera handitu da Errumania, %101,4.

Era berean, esanguratsua da Aljeriako nazionalitateak nola handitu diren, %134,3. Are gehiago paraguaiarra, 2007tik %178 handitu baita; 2007an, 2.000 ziren, eta 2012an, 5.521.

Oraindik handitzen ari diren nazionalitateak dira Txina (84,2%), eta neurri txikiagoan, Brasil (27,6%) eta Bolivia (21,8%) Hazkunde negatiboa izan duten nazionalitatearik garrantzitsuenak Kolonbia azken bost urteetan (-4,5) eta Ekuador (-%24) dira. Dena den, aipatutako azken bi nazionalitateetan, berriz ere kontuan izan beharko da nazionalizazioen fenomenoak.

6. grafikoa. EAEko hamar nazionalitate nagusien bilakaera, 2007-2012 (Kopuru absolutuak eta erlatiboak)



Iturria: EINek dituen datuekin egina